BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

380

AGINDUA, 2011ko abenduaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako «Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús - Fátima» ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Aztertu da Bilboko (Bizkaia) Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako «Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús - Fátima» ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedientea, non baimena eskatzen baita ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (9ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Bilboko (Bizkaia) Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako «Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús - Fátima» ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena ematen da; aurrerantzean «Esclavas SC - Fátima» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua izango da. Ikastetxearen kodea 48008549 da, Bilboko (Bizkaia) Tiboli kaleko 2an eta Enekuri etorbideko 70ean dago, eta «Congregación Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús» entitatea da titularra.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.